

Erdal Literatura Euskaraz

Joxerra Garzia

Beste inork ezean Joan Mari Torrealdaik urtero egin ohi digun Iazko Euskarazko Liburugintzari buruzko txostenetan ageri eta nabari denez, liburu gehiago argitaratzen da euskaraz urtetik urtera.

1980ko 219 liburuetatik, 602ra pasa gara 86an. Eguneko liburu bat baino gehiago, beraz, ia bi.

Berez pozgarri diren datu hauen aurrean, ordea, ohar bat dago egin beharra, duela gutxi argitaletxe batetako arduradun bati entzuna: "Itzulpenari eta bir-argitaralpeni esker bakarrik mantendu ahal izan dugu argitalpen maiztasun hori".

Euskarazko liburugintzaren sostengu nagusienetako bat dugu, beraz, itzulpena.

Baina zer itzultzen da? Nork erabakitzen du zer itzuli eta zer ez? Norentzat behar da itzuli? Zer laguntza behar lituzke itzulpenak?

Galdera guzti horiei erantzun asmoz onartu nuen SENEZekoen enkargua, artikulu sail baten bidez itzulpengintza aztertzekoa, alegia.

Asmotik egintzara gogoia omen zubi, baina gogo hutsezko zubiak ez du harako lastozko hark baino sendotasun eta segurantzia handiagorik. Datu biltzetik hasi behar, eta hasieratik bertatik azaltzen dira oz-

topoak. Arrænka ihardun arren, ezin arrankatu. Ezin datuak inondik inora bildu.

Hori ikusirik, argitaletxe nagusiak banan-bana aztertu beste erre-mediatorik ez, eta horrixe helduko diot, besterik ezinean, honako hone-tatik hasita.

Hasi, euskarazko liburu produkzioaren puskarik handiena duen argitaletxetik hasiko naiz, ELKARretik alegia, berari dagozkion datuak aski adierazgarri direlakoan. Datu biltze soila egiten saiatuko naiz, ondorioak ondoren ateratzeko esperantzan.

ELKAR argitaletxearen itzulpen politika

Hona hemen iazko produkzioaren datuak:

	KOPURUA	ORIJINALAK	ITZULPENAK	B/B TIRADA
LIBURUAK (tituluak)	106 ⁽¹⁾	71 %67	35 %33	?
TEST.-LIB.	32 %29	32 %100	XX %0	?
HAUR LIT.	29 %26,5	16 %55	13 ⁽²⁾ %45	3/4.000
GAZTE LIT.	20 %18	6 %30	14 %70	3/4.000
HELDUEN LIT.	19 %17,5	13 %68,5	6 %31,5	2/3.000
BESTE	6 %5,5	4 %66,5	2 %33,5	1/2.000

(1)Beste lau liburu ere bai, frantsesez, hemen kontutan hartuko ez direnak.
(2)Horietarik bi, itzulpen-koedizioan (Txalupa sailekoak).

Testu liburuen saila eta orotariko liburuen alde batera utzirik, argi dago itzulpenak garrantzia handia hartzen duela literatur produkzioan. (Kontuan har, euskarazko lau liburutatik 3 ELKARrek argitaratzen dituela). Garrantzia hori areagotu egiten da gazte literaturari dagokionean: %70a itzulitakoa bait da. Badirudi, beraz, haur eta hel-

duentzat aski idazten dela hemen bertan, ez dagoela inportatu behar handirik. Gazte literaturan, berriz, eskasia nabarmena dago. Garrantziarik gabeko alorra delako ote?

Zein erizpide erabiltzen da itzuli beharreko obrak aukeratzera-koan?

ELKAR argitaletxearen kasuan, bi sail nagusi bereizi behar dira:

1. Haur eta gazte literatura:

- . Denera, 49 titulu 1986an. 22 orijinal eta 27 itzulpen.
- . Joxean Hormazabalek du sail honen ardura.
- . Bere gain dago, beraz, itzuli beharreko liburuen aukera egitea.
- . Itzultzailea aukeratzeari ere bere esku geratzen da.
- . Enkarguz eginiko itzulpenen azken orrazketa ere, Joxeanen ardurapean joan ohi da.
- . Aipatutako material eskasia erremediatu nahirik, BILINTX saria eratu du ELKARrek, haur eta gazte literaturarako.

2. Helduen literaturan, aldiz, lan orijinalak dira nagusi:

Denera 19 titulu izan ziren 1986an. Horietarik 13 orijinal, eta 6 besterik ez itzuliak.

. Hona hemen itzultitako 6 obren tituluak:

Dorian Gray-ren erretratua	O. WILDE	Bittor Hidalgok
Agurea eta itsasoa	HEMINGWAY	J.M. Iturraldek
Estepako otsoa	H. HESSE	P. Zabaletak
Pailazo baten aburuak	H. BÖLL	J. Azpirozek
1.280 arima	J. THOMSON	X. Olarrak
Kafe hartzea Iruñean	R. LAXALT	X. Mendigurenek

Aspalditxo ekin zion sail honetako arduradun den Imanol Tapiak irizpideak finkatzeari. Horretarako, batzorde bat osatu zuen, Txuma Lasagabaster, Mikel Lasa, J.A. Arrieta, X. Mendiguren eta Joxean Azpiroz tarteko zirelarik.

Hogeigarren mendeko literaturak eman dituen obrarik funtsezkoenak errepasatu, eta 50 bat tituluz osaturiko zerrenda burutu zuen batzorde honek.

Zerrenda horren inguruan mogitzen da, beraz, ELKARren literatura itzulpenen politika. Baina berriro diot: nahi izatetik ahal izatera bide luzea dago, 1986ko emaitzak argi asko erakusten duenez.

Garbi dago, beraz, berea ez zen ardura hartu zuela ELKARrek zerrenda hori osatzerakoan. Eta zerrenda talde baten lanaren emaitza denez, fidagarritzat jo daiteke. Azken finean, halere, pertsona bakar baten gainean doa erantzukizun osoa, eta nago zama astun samarra ez ote den hori edonorentzat.

Zerrendan agertzen diren obrak itzultzeko borondaterik edota gaitasunik duen itzultzailek ez da beti aurkitzen. Itzultzaileek proposaturiko obrak, bestalde, ez dira zerrenda horretan agertzen direnetakoak. Horra hor, agian, itzulitako obren kopuruaren txikia esplik dezakeen datu bat. Kontuan har, gainera, zerrendako seigarren liburua ez dela inondik ere sartzten sailaren arrastoan: konpromiso hutsezko liburua da, dudarik gabe. Bost literatur-obra dira, beraz, urte osoan zehar argitaratuak. Bostak dira nobelaren zakuan sartzeko modukoak. Inglesetik hiru, eta alemanetik beste biak.

Eskasia horren arrazoiatariko bat aipatu dut arestian. Bada besterik ere, noski: itzulitako liburua garestiago ateratzen da, iguanean, originala baino. Saldu ere, gutxiago egiten da (ikus kuadroan tiraden kopuruak). Instituzioengandiko laguntzak txikiagoak dira itzulpenen kasuan, sormenezkoetan baino...

Eta abar, esan ohi den bezala. Ez da, ez, harritzekoa, literatura obra gorenen itzulpen eskasia. ELKAR argitaletxearena azaldu dut oraingoan, baina ditudan datu urrien arauera badirudi joera hori mantendu ezezik areagotu egiten dela orohar euskarazko liburugintza osoan.

Hala balitz, martxa kaxkarra litzateke hori mundu mailako literaturaren gutxienerako antologia nahitaezko hori arrazoizko epe baten barruan osa dezagun.

Baina hori, eta hemen aipatu ere egin ez ditudan beste zenbait alderdi (itzulpenen kalitatearena, kasu) hurrengo atalerako utzi beharko ditut, oraingo honek hementxe bait du bere azken puntua.